

LIBURUAK

"Estelas funerarias del Pais Vasco"

(Euskalerriko ilarriak)

J. M. de Barandiaran


Axal-axala erderazkoa duan arren, Don Jose Migelen liburu onek mamia ez du erderazkoa, euskerazko jator-jatorra baizik. Gaia, eusko-gaia; eta izuntza ere, euskera. Obeto esan, euskera-erdera, bitara, guztiuntzako izan dedin.

Liburu bat, jakitatez, jakinduriz anpatua —ori da bearrena—. Baiña baita beste alderdi edo batez ornitua ere: liburu «eredua». Berrogei urteren buruan, eldu, umotu, zoritutako liburua, Eredu bikaina, zenbait espiritu arifentzako; bi edo iru dato bildu orduko, teoria bat sortu, eraiki, muntatu nai duten espiritu arifentzako; eredu bikaina.

Aspaldidanik entzunda, genedukion gure adiskide aundiari: esku-arrean zerabilzian euskal-galetza, etzuala «teoriarik» erakitzen asi nai, irurogei urte bete arte; irurogei urtean «bildu-ta-bildu-ta-bildu» ari bear zuala; eta orduan asi, teori-muntaketan; bitartean ez.

Eta egin ere, alaxe egin du. Bere irurogei urteak «eririk kanpora» bete zitazkion; eta eririk kanpora eratu zuan —saritu zioten— gaur ikusten degun liburu bikain au. Ba dira urte batzuk. Gaur zorionez argitaldurik ikusten baitu degu. «Txertoa» deritzan Argitaldariai esker.

Gaia, izenak berak dio: «Euskalerriko ilarriak». Baiña ilarrien babesean, bilduma oso bat ematen digu gure Maisuak, berrogei urteren buruan Euskalerrian bildu duan eriotz-folkloreaz, gure Erriak ikontu esaten eta sinisten dituan guzietaz.



Luosoako ilarri bat, bi aldetatik ikusia.

Bilduma ederra; baiña baita bilduma eredua ere, edozer gaitan lana sakonki egiten guztioi erakusteko. «Bildu-ta-bildu-ta-bildu»; eta «gero» eraiki «teoriarik».

Liburuaren erdia, edergarritz ornitua ageri da: gauza probetxugarria, batez ere gure zenbait eskulturgai ta epigrafai jatorra ikasi nai dutenentzat. Guzitara, 212 orrialde; aietatik 115 edergarriidun. Salneurria, 210 pezeta.

M. L.

SOPELANATIK GERNIKARA

(San Andresgo Baseliza)

Orain dela egun batzuk, Sopelanako erri maitagarrian izan nintzan. Promes egina neukan aruntz joateko eta ala, joan den astearen azkenean, an azaldu nintzan.

Erri ontako bideetan ibiltzen ba zan naiko lan. Itsasoko aize burdetsuak aurrez aurre jotzen zuan.

Ba du erri aipatuek Ikastola bat oso ongi eratu.

Ba da an zenbait gizon gazte kartsu eta burrukalari, egun ta eguzki, Ikastolaren alde lanean ari dena.

Ba dira antean andereño bi, Begoña ta Mari Eujeni, zein baino zein ikasiagoak, biak maratzak, biak arontz langileak.

Gela txukunak. Aur ugari, bikain eta ezinegonak! Euskal azkazia edo arraza zutik dago!

Sopelanako erri ori, Nerbion deritzan erreka ezagunaren esku al-dean, finkaturik dago.

Naiz eta gizon aiek bizkaieraz mintzo ta nik beste euskalki batez, denok dena ulertzen genduan.

Geroz eta geiago, ba goaz biziidun batasunera.

[Zorionak, ene partez, gizonzako ala nola emakumezko guztioi, alegia, Nerbionen ertzeko «alienazioaren» kontra ari zeraten guztioi!]

SAN ANDRESGO BASELIZA Igandea, 24-1-1971.

Meza eman eta entzun ondoren, lagun sail bat Plentziara goaz. Karretera edo orgabidea, larre eta itsaso artean, dijoa. Alde batek batsetxe zabalak an eta emen. Bestaldekik, itsaso zuri eta urdina, aski amorratua. Aurreaxeago, «sorgin landa» deritzana.

Diotenez, denbora gutxi dela, etzuan inork an bizi nai ez da ere etxerik jaso nai. Pentsakera majito ori urbil dago oraindik askoren artean.

Ontan, berebila gelditu da. Bidearen ertzean, baseliza. Inguruan, atari bikaina, herri-tua, baseliza bera bezala.

Erdi aroko baseliza, XII garren mendekoa, agian.

Garai bat izan zan, inguruko Kofradi guztiak antxe biltzen ziran.

Baseliza zaarra, bakartia, negartia (esango nuke) erortzeko zorrian zegoela, gazte sail batek bere gain artu zuan baseliza ori berritzea.

Egun, berritze ori doi doia amaitu dago.

Ba ditu baseliza famatu ark bi alderdi interesgarriak. Batetik, Erdi Arokoa danez. Bestalde, S. Aranak bere elizarik maitaioena eta kuttu-nena zualako.

Norbaiti enzuna diot, baseliza onen sapaetik jaso zuala euskal ban-deraren marrazkia.

Izan ere, aldare nausiaren sapaiean, arbi lerroak, marrazki berdi-nean, baitaude. Egia ez bada ere, egiaren antza ba du.

GERNIKARUNTZ

Asteleena. Ene adiskide Xabier Legarra gidari ona da.

Mungia igaro ondoren, zuzen zuzen, Gernikaren bila goaz.

Ekzer aldetik, naiko urrun, Soillubeko mendia gaiturra.

Erri txikar ezagun asko. Fruniz, Gatika, Meñaka.

Bazkalondoa.

Gure Gernika maiteak merezi du ikustalditxo bat.

Zutik dago, zerbaiz makurtua, adarrak asko edatuaz, osterik gabe,

«udabariaren zai zai», ariz famatua.

Barnean, gela nausian, euskal bardo Iparraguirreren margoa.

Alboan, bere eskuz idatzita:

«Gernicaco arbola da bedinecatuba eusealdunen artian gutziz maitatua»

Berriro, berebilean.

Alde batetik, Sukarrieta.

Bestetik, Santamamiez. Arratsaldeko itzala mendiz beera dator.

Aize mina. Donostiaruntz. Jose Lasa

Jauregitar Luis apaiz jauna, "Jautarkol" joan zaigu

(G. B.)

Zarautzen izan gifan Urtrarrilaren 3an. Eta andik etxerakoan, lagun aundi baten eriotz-mifa genekarren.

Jauregitar Luis apaiza, «Jautarkol» izenordeko euskal idazle bikainari azken agurra egin genion aren la-gunok.

Beribilietik jetti gifaneko bazera-maten lagun maitaeren gorputza bi-de zabelean zean. Gogoan degu oraindik, nola hie beretik eraman genduan Zarauko Eliza Nagusiruntz, don Mateo gotzaiaren gorputza ere.

Oso gazterik ezagutu genduan don Luis, Komillasko Apaizgaitagien. Ordurako euskal idazle egfia, zan gure errenteriarra, ta urteak aurre-ra, bere aldioko olerkari izan gen-duan, Lizardi zana-ta baiño leentze-ago. Aitzolen belaualdiko idazlea ta lagun mifa zan Jauregi apaiza.

Aitzolek eman zion arean izenari, iritxi zuan izenik aundiena. Aren aldioko euskal idazleok, gogoan izan-go degu bizi geran artean.

Aren bizi-aria Ereterentiar ast zan 1896ko urteko ekainaren 19an jaioa. Apaiz eginda gero, leenbizi Buradongo Gatzagan, Araban artu zuan arimen artantzaz. Gipuzkoan, Aitzo, Tolosa ondoko Anoeta, Matxinben-ta, Urrestilla ta Zarauko moja kar-meldarren kapellau ikusten degu.

Emen azken-urte auetan bere osau-na auldu zitzaion, eta bere ix-lleean urtu zaio bizia.

«Jautarkol» izenordea, bereala ezagutua izan zan euskal papere-tan. Batez ere, gerrate aurreko Ze-ruko Argia zaarrean, Irakurtzen di-tugu sarri aren olerkiak. Bertsolari maila utzi ta egan egin zigan bere euskera txukunean olerkari mailera.

Ta ala argitaidu zuan bere oler-ki-liburu «BIOZKADAK» izenekoa. Aita Intza Damasok egin zion itzau-rra, ta bertso goxo aiek zabalera-aundi-eman zioten Jauregiren izen-ari. Bertso-miñak ikutu zionetik, bere maila artan eraman zuan bizi guzia;

zuzagitz-ostoa, ori ta igarrak, lurreratzen dituean, nabigabe baten arantz zorrotza, beazunezko tanto mingotza, nabaitzen tedi biotzean...

Bere burutik darion bertso-jario uia, ifoiz galduko ote da oroirik ezaren zuloan?... Baiña ez... Eus-kal-soroan; beti biziko dira Jaure-giren olerkiak. Bere aldia bete bai-tzuan errenteriar prestuak. Gero, aren ondoren etorri ziran Lizardi, Lauaxeta, Orixeren EUSKALDUNAK eta ondorengo idazle jatorrak.

Ezagunak dira ere, «Xenpelarri buruz argitara zuan liburu ederra; Cela idazlearen «La familia de Pas-cual Duarte» euskeratua ta beste amaika lan eder.

Azken urte auetan, Zarauko be-re kapellautzan, mundutik aparte, bizi izan da. Argizaria bezela osau-na urtean joan zaio bere izku-tuko egonlekuan.

Elizara bidean galdu gifan lagun-taldea, aren gorputzaren ondoren gere min-ixilla itotzen. Euskal lan-gille bat gutxiago. Zarauko eliza nagusia bete-betean; zaxpi apaiz meza ematen. Eliza kantak aidea urratzen... Aldi baten argia itzali zaigu arekin.

Zarautzik Ereteriarra eraman zu-ten gorputza. Bere jaioterriak ere, azken-agurra eskeifni bear zion kan-tari errikoitari. Euskal erri osoaren miñak biotza galdu baitzion, min orren dardarra nabaitzen zan aren illetetan:

Euskal-erria euskerik gabe bai erri gaixoa!... Masti orritsu ederra baiña... matsik gabekoa. Lorategian il eta agortu dan itxurritxoa!... Onela eraman du kondairak bere maindira zurian estalia. Gure biot-zak negarra zerion etxera itzulean. Agur, adiskide! Jaunak bere pa-kean ar zaitzala!

Udazkeneko aize zakarrak, Etxanitzar Nemesio

"Hacia la lengua literaria común"

Luis Villasante

Beragan usuario zahar den legea hautsiaz, Aita Villasantek erdal liburuska bat eskaini digun orain-goan: Hacia la lengua literaria común, dio liburu azalak. Azken aldi honetan hain nabarmenak izan ditugun eztabaidak tarteko direla, Eus-kaltzainburuak bere aldetik argita-sun piska bat eman nahi izan digu.

Seguraski, gure artean asko dira kaleko eta lagun arteko eztabaidak izan nahiz entzun dituztenak. Eus-kerarekiko horiek, nahiko asaldu ta eta erreta gauzate. Euskera gehiegi ez dakiten eta jakinarren ezer guti irakurtzen duen antz ba dugu; hauek ere zenbat aldiz ez dute parte hartu diskusio horietan? Gu-ziontatz idatzi da liburu hau. Eta hain zuzen, ez da liburu bakarra izango: halako liburu xorta bati ematen dio honek hasiera: Serie «Luis de Eleizalde» sobre unificación del euskera escrito, esaten da barneko liburu-atéan.

Guziok, edo gehienok, dakigunez, Aita Villasantek ba du gai hauetz ber tesia, eta liburua nolabait po-lemikoa bada ere, bereziki batasun arazoari begira ari da. Honetarako, oraingo lehena lanean, batasun-egarri horrek sortu dituen ahal-gien historia egiten du. Azken zi-zaldi erdiko gainbat izen eta gizon beneragarri hoinatzen dizkigu eus-kaltzainak: Abandotara eta haren jarraitzailek, Azkue, Eleizalde eta Ur-kijo, Orixe eta Krutwig ahaztu ga-be. Guzien iritziak, laburki bada

ere. Izan ere, zenbat amets zaha-rren erdi-minak ez ote ditugu gau-ko euskaltzaleok!

Liburuaren lodia, Mitxelena jau-naren proposametuak aztertuta a-gerian jartzeko idazten da. Eus-keraz nahiko ezagunak izan dira, edo gai hauetan arduratuek izan dute aukera onik, horien berririk jasotzeko. Baina, gero, zurrundi-loak esnarazi duen askok ez dute —honeka, bere osotasunean eta errazki— ezagutzeko era berdinik eduki. Liburu hau lan erosoa izango da guzientzat.

Hasieratik, ideiak argi nahi ditu egileak: zer da literaturaz hizkun-tza?, nola sortu izan da literatura horren batasuna gainerako mintzal-retan?, nola banatzen dira hizkun-tza hitzegina eta idatzia? Euskera, gaur ezagutzen dugunez, dialekto-etan zatiturik agertzen da: jakin beharko genuke zein euskalki di-tugun ere, bai hitzegitean eta baita literatura kondairan ere.

Ondoren, gure eztabaldakizun izan ditugun puntu gehienak datoz, ze-hazki eta puntuz puntu agertuak. Ortografia, batasun-oinarrien ondi-otik: Euskal Akademiaren agiria, ge-ro; hitzegiarekoak; deklinabidea eta euskal aditzaren batasuna, eta euskeraren gramatikazko joserka.

Zer esan Aita Villasantaren libu-ru berri «honetaz»? Baliozkoa da, noski. Hanhemen sakabanaturik ze-goen arrazo eta jakingarri zenbait argi eta ordena onean ematen ditu.



Liburu honek, nik uste, beteko du bere asmoa: herri-jendeari polki asko ezagutaraziko dizkio, hainbat eztabaidatan gehiegi nahastu ditugun gauzak. Ondoren etorriko di-renekin, gaurko gure euskal kezka eta egiteko askoren agergerri egok-ia gertatuko zaigu liburu hau. Joseba Intxausti

SEMENO DE LAZKANO

Arrindatar Anastasi, Debako apaiz nagusi degu. Urte askotan euskera sailletik muttu ibillita, indar berriez asi zaigu euskal liburuak eskein-zen. Juantxo txiki, Oto ta Pototo, Euskal-erri Zearra ta Semeno de Lazkano (Anai arteko gorroto) sor-tu dizkigu bat-batetan.

Ala ere, borondate ta gogo onak, zenbat laguntzen duan, ederki ager-izen du azkenengo liburu onek. SEMENO DE LAZKANO, azkenengo bere liburu onek, alako elkarriketara erraza ta berezko arintasunez jan-tzia erakusten digu. Leenengo bere liburuak ikusita gero, asko irabazi duala esan ditekete, euskera erabil-tzen.

Itzaurrean gaurko gure arteko «H»aren burruka umorez artzen du. Euskal idazleen artean sortu dan erremifia alde batera utzita, irri-jorran, parrez artzen du gure zima. Umorea galtzeko gure ezpaiak ai-ptaeza, ez da alde txarra.

Liburuaren mamia, aintziñako eus-kaldunen arteko gorrotoa da. Bere-ziki, gipuzkoarrok nafarrikon urte luzetan izan genduan burruka gal-garria ageri da bere: orrialdetan. Sarrera bezala, azken urte auetan berritu zitzaigun gerrate ura konta-tzen digu. Ta bere egitekoa artez-ko, aurrez, nafar reketeak Lazkano

nola sartu ziran kontaktzen digu.

Ba-dirudi idazleak au esaten di-gula: «Kontu zarra euskaldunen ar-teko gorrotoa ta erremifia...». Ge-ro, karlista gerrak iraisean aipatu ta gero, aintziña zaarera jartzen du, Lazkaoko Jaunak eta Etxarri-«Aranazko nafarrak izan zuten ur-teetako liskarra kontaktzen auster zaigu.

Istori ta gaia, tajuz eramanak ditu. LAZKAOKO SEMENO, emen-go jaunaren seme jatorra, nafarren kontra» dabil, eta elkarren gorro-toak azken txarrra darama.

Alde bateko ta besteok burruka-lariak, batzuek zentzudun eta pake-zaleak; besteak gorrotz eta zima-keriz joak. Auek maltzur jokatuz, gizonik onenak naasten dituzte. An-galtzen da Lazkaoko jaunaren ser-bitzari zintzoena, bere nagusiaren semearekin batera.

Liburu irakurrita gero, ZIGOR operaren antzeko bat sortzeko gai-rik egokiena duala, deritazt. Ant-zerki-bizi bat, naiz nobela larri bat mamitzeko ere, egoki letorkiguke, istori zaar au.

Gure gazteak ba dute or bere-n gaitasuna erakusteko naikoa lan-bide. Etxaideren GORROTOA LEGE datorrik gogora. Aren sende izan-go litzake, LAZKAOKO SEMENORI



buruz egindako nobela naiz antzer-kiak.

Liburu onen egileak berak ere, ez luke lan txarra, liburu onen ondoren beste liburu sakon eta zi-radakorrerago burutuko balu. Esa-nak-esan, bejondaiola Debako Apaiz nagusiarri, bere parroko-ardurak eta guzti onelako liburuak eskeintzeko gauza izan dalako.

Etxanitzar Nemesio

Etxanitzar Nemesio